

2009/2010 IKASTURTEA

PROGRAMAK

| | | |
|---|------------------------------|---------------------------|
| Irakasgaia: <i>Arkitektura: Sarrera</i> | | |
| Kodea: 20448 | | |
| Kreditu Teorikoak: 9 | Kreditu Praktikoak: 0 | Kreditu Guztiak: 9 |
| Kurtsoa: 1º | | |
| Mota: Enborrekoa | | |
| Lauhilekoa: Bigarrena | | |
| Saila: Arkitektura | | |
| Arloa: Konposizio Arkitektonikoa | | |

DONOSTAKO ARKITEKTURA GOI ESKOLA TEKNIKOA • UPV/EHU
Arkitektura Saila • Arkitektura Konposaketaren Arloa

Irakasgaia: ARKITEKTURA: SARRERA • 20448 • Lehenengo Maila • 31 Taldea
2009/2010 IKASTURTEKO EGITARAU • 2. Lauhilekoa
Juan Angel Larrañaga, Irakaslea

1. HELBURUAK / GAITASUNAK

Ikastaroaren bukaerako ikaslea ondorengo egiteko gai izatea da irakasgaiaren helburua:

- G/1 - Identifikatzea eta erabiltzea, zuzentasun eta irizpide kritiko minimo batekin, edozein motako arkitekturaren ohartzen denari buruz erabiltzen diren oinarrizko kontzeptuak, arkitektura produktuek erakar, atsegin eman eta bizkortu dezaten bere erabiltzaileen izpiritua, eta arkitekturaren ideagintzaren lana informatua, atsegina eta, horren ondorioz, emankorragoa eta sortzaileagoa izan dadin.
- G/2 - Identifikatzea eta erabiltzea, zuzentasun eta irizpide kritiko minimo batekin, mendebaldeko arkitektura garaikidea tradizionalarekiko bereziki zehazten duten oinarrizko datuak, ezaugarri aipagarriak eta funtsezko ideiak, arkitektura proiektu moderno baten baldintzetarako diseinu aukera egokienak hartzeko.
- G/3 - Identifikatzea eta erabiltzea zuzentasun eta irizpide kritiko minimo batekin, Europar Berpizkunde aurretik sortutako arkitektura ezberdinak bereziki zehazten dituzten oinarrizko datuak, ezaugarri aipagarriak eta funtsezko ideiak, natura edo eraikitako ingurumenean zuzen esku hartzeko, kontuan izanez tokian biltzen diren arkitektura guztien koherentzia estetikoak.
- G/4 - Identifikatzea eta erabiltzea zuzentasun eta irizpide kritiko minimo batekin, arkitektura-lan bati buruzko testu-informazio, lan grafiko eta fotografiko egokienak, arkitektura arazo ezberdinez pentsamendu informatua eta arrazoitua, eta irizpide estetikoaz eta zentzu kritikoaz hornitua, bai ahoz eta bai idatziz gauzatzeko.
- G/5 - Aurkitu, bildu eta aukeratu, bere ibilbidearen erregistro zehatza utziz, ondorengo egin ahal izateko informazio-materiala: interesatua izan ahal edonori modu ulergarrian arkitektura proiektuak erakusteko edozein arkitektura-lan baten deskribapen laburrak, formatu jakin batzuetan eginiko konposaketa grafikoak eta ikus-entzun aurkezpen labor-zehatzak erabiltzea.

2. IKASTAROAREN GARAPENA

G/1, G/2, G/3 eta G/4 gaitasunak eskuratzeko, ondorengo lanak egingo ditu bakarka ikasleak:

- A • AHOZKO AZALPENAREN ENTZUTE AKTIBOA IKASGELAN.
- B • IKASKETA SISTEMATIZATUA.
- D • AZTERKETAREN ERANTZUNA.

Lehenengo hiru gaitasunei buruzko Ahozko Azalpenak (G/1, G/2 eta G/3), oinarrizko bibliografia batetaz ariko dira eta testu eta ikusi-proiektzioen laguntza izango dute. Ikasgai-Zerrenda Blokeak hiru izango dira, bat gaitasun bakoitzari buruzkoa, hurrengo epigrafean zehazten den arabera. G/4 Gaitasunari buruzko Ahozko Azalpenak, bere aldetik, G/5 gaitasunaren garapenean ikasleek beraiek egindako Ikerketa Lanen Azalpen Publikoak izango dira. Lauhilekoaren lehenengo erdian, G/1 eta G/2ri buruzko Ikasgai-Zerrendak ikusiko dira, bien ikasgaiak tartekatuz. Bigarren erdian, berriz, G/3 eta G/4ro buruzkoak, baita ere tartekatuak.

G/5 gaitasuna eskuratzeko, eta beste dokumentu batean zehazten diren baldintzen arabera, IKERKETA LAN bat egingo du ikasleak, bakarka edo lantaldeka, hark nahi duen moduan, ondorengo zereginak barne izanik:

- IL1: Dokumentu Ikerketa bat, ikasleak edo lantaldeak aukeraturiko Arkitektura Lan konkretu bati buruzkoa.
- IL2: Konposaketa Grafiko bat, bildutako informazioarekin.
- IL3: Lan Idatzi bat, bildutako informazioarekin.
- IL4: Aurkezpen Publiko bat, bildutako informazioarekin, ikaskideen aurrean.

Ahal izanez gero, gainera, bisitaren bat edo bidaiaren bat egingo dira intereseko arkitektura zuzenean ezagutzeko.

Ikastaroan zehar, ahalegin berezia egingo da ikasleek azaldu den guztia birformula eta erkatu dezaten, jarrera aktiboa, kezkak eta iritzien agerpena eta, ikasgaiaren garapenean, mota guztiko parte hartzea biztu nahian. Adierazpen grafikoaren erabilerari balioa emango zaio, adierazpen idatziaren osagarri gisa. Taldekako lana eragingo da. MOODLE plataforma erabiliko da ahal den guztirako. Horren bidez, galdera

bat erantzuteko emango da, azken kalifikazioa hobetzeko.

3. IKASGAI-ZERRENDIA

Lehenengo hiru gaitasunen gai-zerrendak (GZ/1, GZ/2 eta GZ/3) hiru Ikasgai-Bloketan garatuko dira, eta hauetako bakoitzak bost ikasgai izango ditu. Ikastaroan zehar, hirurak azalduko dira, hitzeko eta ikusteko ezagutza mota arteko konbinaketa egokiena aurkitzen saiatuz. Eta ahaleginak eginda gaiak ez agortzeko eta errealitate arkitektonikoaren ikuspen itxi bat ez emateko. Ondorengoak dira Ikasgai-Bloke horiek.

G/1 • OINARRIZKO KONTZEPTUAK

- 01 - Zer da arkitektura.
- 02 - Arkitekturaren eraikuntza / Sendotasuna
- 03 - Arkitekturaren erabilgarritasuna
- 04 - Arkitekturaren oharmena / Edertasuna
- 05 - Beste oinarrizko arazoak

G/2 • MODERNOTASUNA. HASI-MASIAK

- 06 - Arkitektura tradizionaletik modernora
- 07 - Mugimendu Modernoaren hasiera. Amerika
- 08 - Mugimendu Modernoaren hasiera. Europa

- 09 - Mugimendu Modernoaren garaipena
- 10 - Modernotasuna eta Gaurkotasuna

G/3 • TRADIZIOA. AINTZIN AROA ETA ERDI AROA

- 11 - Mendebaleko arkitektura
- 12 - Arkitektura grekoa
- 13 - Arkitektura erromatarra
- 14 - Arkitektura paleokristaua eta bizantziarra
- 15 - Arkitektura erromanikoa eta gotikoa

4. EBALUAZIO SISTEMAK / IKASLEAREN AUKERAK

Ikasleak bi aukera ditu ikastaroaren garapena jarraitzeko: Ebaluazio Integratuaren Sistema edo Ebaluazio Tradizionalaren Sistema. Lehenengoa hartzen badu, emandako epearen barruan erabaki beharko du eta dagokion zerrendan inskribatu. Epe beraren barru, ea bakarka ala taldeka egingo duen Ikerketa Lana adieraziko du; norekin osatuko duen Lantaldea hori egiteko, hala gerta baledi (gehienez, hiru lankide); eta zer Arkitektura Lan aukeratzen duen ikertzeko. Ez badu hori egiten emandako epearen barruan, Ebaluazio Tradizionalaren Sistema aukeratu duela esan nahi izango du.

Ebaluazio Sistema Integratuak jarritako lan bakoitzean arduratze zehatz bat eskatzen dio ikasleari eta, aldi berean, horren arabera ebaluazio proportzionatuak eskaintzen dizkio. Ebaluazio partzialak ondorengoak dira:

- *Azterketa*: Azterketa Idatzia G/1, G/2, G/3 eta G/4 gaitasunen gai-zerrendei buruz. Erantzun laburreko 14 galdera izango ditu (orrialde erdi batekoak), bakoitzak 0,5 puntu balio dituelarik, gehienez 7 puntutaraino guztira. Horrek Kalifikazio Osoaren 70%a beteko du. Bi zati izango ditu. Lehenengoak, G/1 eta G/2 gai-zerrendei buruz, 8 galdera izango ditu eta, gehienez, 4 puntu osatuko ditu. Bigarrenak, G/3 eta G/4 gai-zerrendei buruz, 6 galdera izango ditu eta, gehienez, 3 puntu osatuko ditu. Ikastaroaren baldintzen arabera, biak egun ezberdinetan egiteko aukera egon daiteke.
- *Ikerketa Lana*. Bakarka edo taldeka egina, ikasleak nahi duen moduan, eta beste horri batean jarritako baldintzen arabera. Honek, gehienez, 2 puntu osatuko ditu, hau da, Kalifikazio Osoaren 20%a.
- *Irakaskuntzaren Garapenean Parte Hartzea*: Ahozko Azalpenetara Aldian Behingo Etoritze-Kontrolak betetzen gauzatuko da. Guztira, puntu 1 lortu ahal izango da gehienez, modu horren bidez, hau da, Kalifikazio Osoaren 10%a. Ikasleren batek puntu horietakoren bat galtzen badu, edozein arrazoiarengatik, aukera izango du berreskuratzeko, irakasleari kontsultak eginez Tutoretza orduetan edo, beste era batera, Irakaskuntzaren parte aktiboa hartzen.

Azterketa idatzien galderetan, ikastaroan zehar esandako eta ikusitako guztia sartuko da. Horrela, Gai-Zerrendari buruz espresuki ematen denetik aparte, barne izango dira honako hauek ere: arkitektura arazo orokorrei, gaurkoei eta beste garaietakoiei buruz azaltzen den guztia; sortutako debateetan adierazten dena; Ikerketa Lanen Azalpen Publikoetan erakusten dena; eginez gero, bisita eta bidaietan ikusten eta entzuten dena; etab. Sarrera maila bati dagokionaren arabera, ikaskuntza prozesuan ikasleak aurrera egin duena kontuan izanik baloratuko dira erantzunak, prozesu honek ondorengo lau fasez igaro behar duen osotua izateko:

- Ekarrirako informazioen zuzentasuna
- Deskribapen eta azalpenen egokitasuna
- Azterketen bereizgarritasuna
- Iritzi formulazioen kalitatea

Honako hauek kontuan izanik baloratuko da Ikerketa Lana

- Bildutako informazioaren kantitatea, kalitatea eta hori lortzeko egindako lana.
- Aurkezpenaren ordena eta argitasuna

• Emaizaren erakargarritasuna eta liluramena

Saria. Ebaluazio Integratuaren Sistema hartzen duen ikasleak, lortutakoaren 05% gehiago gehituko dio Kalifikazio Osoari, lau ebaluazio partzialetan lortzen badu, gutxienez, bakoitzean gehienez lortu daitekeenaren erdia,.

Ebaluazio Sistema Tradizionala. Ebaluazio Sistema Integratua hartzen ez duen ikasleak, azterketa bat bakarrik egingo du, lauhilekoa bukatu ondoren, Ahozko Azalpenen lau Ikasgai-Zerrendei buruzko 20 galderekin, 0,5 puntu balioko dituelarik bakoitzak gehienez.

5. IKASTALDIEN ORDUTEGIA (2. LAUHILEKOA)

Eskolak jarritakoa.

6. TUTORETZAK. IRAKASLEAREN BULEGOAN

Ikastaroaren hasieran finkatutakoa.

7. OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

G/1GAI ZERRENDA BLOKEA

Roth, Leland M. ENTENDER LA ARQUITECTURA (erabili beharrekoa)

Zevi, Bruno SABER VER LA ARQUITECTURA

Patetta, Luciano HISTORIA DE LA ARQUITECTURA. ANTOLOGÍA CRÍTICA

G/1 GAI ZERRENDA BLOKEA

Frampton, Kenneth..... HISTORIA CRÍTICA DE LA ARQUITECTURA MODERNA

Tietz, Jürgen HISTORIA DE LA ARQUITECTURA DEL SIGLO XX

Benevolo, Leonardo HISTORIA DE LA ARQUITECTURA MODERNA. Tomos I y II

G/3 GAI ZERRENDA BLOKEA

Benevolo, Leonardo INTRODUCCIÓN A LA ARQUITECTURA

Müller, Werner / Vogel, Gunther..... ARKITEKTURA ATLASA I eta II (erabili beharrekoak)

Trachtenberg / Hyman..... ARQUITECTURA / De la Prehistoria a la Modernidad

Juan Angel Larrañaga, Irakaslea • 2009ko otsaila